MUSIKA BULEGOA Batzen gaituena.

JOLAZZ 2027 – MUSIKA BULEGOA – PARTE HARTZEKO OINARRIAK

1. PARTE-HARTZAILEAK

- Euskararen eremu geografikoan (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoa) jaiotako pertsona fisiko edo juridiko pribatuek parte har dezakete.

- Izen-ematea egiten den unean, errolda edo egoitza soziala euskararen eremu geografikoan (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoa) duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuek parte hartu dezakete.

- Ezinbestekoa da jarduera profesionala Euskal Herrian garatzen duen musikaria izatea.

2. HAUTAKETA-IRIZPIDEAK

- Euskal Herriko jazz edo bestelako musika inprobisatu garaikideko musikaria izatea eta bakarka aurkeztea.

- Sormen-proiektua aurkeztea, Taller de Músics-eko ikasleekin lankidetzan garatzeko egokia dena.

- Lankidetzarako gaitasuna eta egonaldi artistikoetan parte hartzeko konpromisoa izatea.

3. CASTING-A ETA EGONALDI ARTISTIKOA

- Casting-a: deialdi honetan hautatutako pertsonak ekaineko egonaldi artistikoan parte hartuko duten Taller de Músics-eko ikasleak aukeratzeko casting-ean parte hartuko du, Jazz I Am jaialdiaren baitan:
  - Martxoaren 10ean: Bartzelonara bidaia.
  - Martxoaren 11n eta 12an: Casting-a.
  - Martxoaren 13an bidaia: Bartzelonatik itzulera.

- Egonaldia:
  - Ekainaren 27an: Bartzelonara bidaia.
  - Ekainaren 28tik uztailaren 2ra: Egonaldi artistikoa.
  - Uztailaren 2an: Erakustaldia.
  - Uztailaren 3an: Bartzelonatik itzulera.

  * **Oharra**: datak behin-behinekoak dira eta aldaketak izan ditzakete. Behin betiko datak egonaldi artistikoa hasi baino bi hilabete lehenago baieztatuko dira.

4. ERAKUSTALDIAK (SHOWCASEAK)

- 2027ko uztailaren 2an: Bartzelonako La Pedrerako Talents Jazz Jaialdian.

- 2028ko martxoan: Bartzelonako Semana del Jazz jaialdian bigarren emanaldi bat egiteko aukera aurreikusten da. Emanaldi hori egiteko aukera egonaldi artistikoaren ondoren baloratuko da, eta antolakuntzak baieztatuko du egingo den ala ez.

5. LAGUNTZA EKONOMIKOA

2027an egingo den egonaldi artistikorako eta hari lotutako casting-erako eta emanaldirako, antolakuntzak honako laguntza ekonomiko hauek eskainiko ditu:

- Antolakuntzak bidaia-gastuak, ostatua eta dietak finantzatuko ditu kontratua sinatzean adostuko diren baldintzen arabera.
- Hautatutako euskal proposameneko musikariak 100€ jasoko ditu casting-eko eta egonaldi artistikoko egun bakoitzeko; guztira, gehienez ere 700€.
- Instrumentuen garraiorako gehienezko zenbatekoa 200€-koa izango da.

Laguntza ekonomiko hauek 2027ko egonaldi artistikoari eta hari lotutako jarduerei dagozkie. 2028ko martxoan aurreikusitako emanaldia baieztatzen bada, hari dagozkion laguntza ekonomikoak eta baldintzak aurrerago zehaztuko dira.

6. KONPROMISOAK

Hautatutako musikariak honako konpromiso hauek hartu beharko ditu:

- Egonaldi artistikoan eta casting-ean parte hartzea, horretarako zehaztutako datetan.
- 2027ko uztailaren 2an Bartzelonako La Pedrerako Talents Jazz Jaialdian egingo den emanaldian parte hartzea.
- 2028ko martxoan Bartzelonako Semana del Jazz jaialdian aurreikusitako bigarren emanaldian parte hartzea, azken hori baieztatzen bada. Antolakuntzak egonaldi artistikoaren ondoren jakinaraziko du egingo den ala ez. Baieztatuz gero, parte hartzeko baldintzak eta konpromisoak adostuko dira.

7. IZEN-EMATEA

- Eskaera-formularioa bete eta epea amaitu aurretik aurkeztu behar da. Izen-emateko epea 2026ko abenduaren 28ko 14:00etan itxiko da.
- Beharrezko dokumentazioa gehitu: biografia, errolda edo egoitza sozialaren herria / hiria zehaztea, erreferentziak eta proposatutako sormen-proiektuaren azalpena.

* **Oharra**: egonaldiaren ekoizpenaren arabera irizpideak moldatu egin daitezke.